



Esp.kodea: 2021JDIR0003

Gaia: DIRU LAGUNTZA: URTEKO
PROGRAMEN DEIALDIA – 2021ekoa.
Hasiera eguna: 2021/04/30

JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko ekainaren 3an egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

“AED Gazte saila: dirulaguntza eskatzea aurtengo egitaraua garatzeko (2021JDIR0003)”

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Garapen Komunitarioaren Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udalak 2021 urterako onartuta duen diru-laguntza deialdiaren barruan, gazte elkarteei urteko programak egiteko diru laguntzak banatzea aurreikusita dago. Laguntza horien xedea da Arrasateko herrian gazteen elkartegintza sustatzea, gazte elkarteei diru baliabideak eskainiz urteko jarduerak eta programak finantzatzeko.

Urtero bezala, aurtun ere bi laguntza eskaera aurkeztu dizkio AEDk Udalari, bata elkartearen egitarau orokorra garatzeko eta bestea elkarteko Gazte Sailaren egitaraua garatzeko. Lehena Euskara Sailak izapidetzen du eta bigarrena Gazteria Sailak, sail bietako teknikariok elkarrekin aztertu ondoren.

Agerikoa da, 2021erako aurreikusita dauzkan ekintzak gauzatu ahal izateko AED elkarte berebiziko ahaleaginean diharduela. Dena den, bizi dugun osasun krisiak baldintzatuta, ekintzetako batzuk modu soilagoan burutuko badira ere, unean uneko egoerara egokitzeak etengabeko barne lana eskatzen du. Honenbestez, Gazteria Sailak prestutasuna agertzen du egokitzen lanok aintzatesteko.

Aurtengo deialdira AEDko Gazte Sailak aurkeztu duen eskaerari dagokionean, deialdian finkatutako irizpideen arabera aztertu ondoren, Garapen Komunitarioko batzorde honek hauxe proposatzen dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

LEHENENGO.- AEDko Gazte Sailari 5.450,00 €ko diru laguntza onartzea “1.0410.480.337.20.00 - “Gazteriako diru laguntzak” kontu sailaren kontura.

BIGARREN.- Diru laguntzaren onuradunei adieraztea harturiko akordioaren jakinarazpena jasotzen dutenetik, 10 eguneko epea dutela adierazi dezaten diru laguntza onartu dutela; epe horretan besterik adierazten ez badute, inplizituki onartu dutela ulertuko da.

HIRUGARREN.- Onartutako diru laguntza honela ordaintzea:

- %60a, aurrerakina izaeraz, elkarteak laguntza onartu duela adierazi ondoren.
- Gainontzeko %40a, edo dagokiona, diru laguntzen banaketarako deialdiaren oinarriek arautzen dutenaren arabera, diruz lagundutako jardueren dokumentazio eta justifikazio

Kodea	BB21/00656	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2021/eka./08	CUDO	000.0055.AAAALMF4.H.0J77	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALMF4H.0J77			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2021JDIR0003

Gaia: DIRU LAGUNTZA: URTEKO
PROGRAMEN DEIALDIA – 2021ekoa.
Hasiera eguna: 2021/04/30

osoa eta zuzena entregatu eta gero. Berau aztertuta, onartutako kopurua zuzendu egin ahalko da elkartearen gain finantzaketa ekiditeko.”

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Edozelan ere, nahi izanez gero, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik, BERRAZTERTZE ERREKURTSOA aurkeztu dezakezu; horretarako, HILABETEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, haren aurka, zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkeztu dezakezu Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, Donostian; horretarako, BI HILEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia egin dezakezu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114 c), 123 eta 124 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera, eta uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.

Eta horretaz gainera, bidezkoztat jotzen baduzu, beste edozein egintza edo errekurtsu aurkeztu dezakezu.

Idazkaria

AED ARRASATE EUSKALDUN DEZAGUN
PABLO URANGA KALEA, 4 - BEHE.
20500 ARRASATE/MONDRAGON

Kodea	BB21/00656	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/eka./08	CUDO	000.0055.AAAALMF4.H.0J77
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALMF4H.0J77		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

